# 561 eredua. Garagardoaren gaineko Zergaren aitorpen-likidazioa.

**Fitxa interneten bistaratu**

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Garagardoaren gaineko zergari lotutako eragiketak, hilabete edo hiruhileko natural bakoitzean egindakoak, aitortzen dira.

### Nork tramitatzen du

- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
- Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia
- Zeharkako Zerg., Eskualdaketen gaineko Zerg. eta Ingurumen Tributuak Kudeatzeko Zerbitzua

### Nori zuzenduta

Zerga horrek kargatutako eragiketak egiten dituzten zergadunak.

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

561 eredua

### Eskaera moduak

» Internet » Presentziala

### Internet bidezko eskaera

561 eredua interneten bidez

### Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

» Ziurtagiria eta B@KQ

### Zuzeneko arretarako bulegoak

Ordaintzekoak: Finantza entitate laguntzaileak
Gainerakoak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzua (Errotaburu Pasealekua 2, 20018 - Donostia), Finantza entitate laguntzaileak eta Herritarren arretarako bulegoak.

## ARAUDIA

20/1998 Foru Dekretua, martxoaren 3koa, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duena.
Zerga Berezien Erregelamenduari buruzko uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretua.
113/2009 Foru Agindua, otsailaren 16koa, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituena.

## INFORMAZIO OSAGARRIA

### Informazio gehigarria

**Aurkezteko epea**

- Hilekoa. BEZaren ondorioz derrigorrez hileko aitorpen-likidazioa aurkeztu behar duten subjektu pasiboek sortzapena gertatu den hilaren ondorengo hirugarren hileko lehen 25 naturalen barruan aurkeztuko dute.
- Hiruhilekoa. BEZaren ondorioz derrigorrez hiruhileko aitorpen-likidazioa aurkeztu behar duten subjektu pasiboek sortzapena gertatu den hiruhilekoa amaitu ondorengo bigarren hileko lehen 25 egun naturalen barruan aurkeztuko dute.